

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aralar taldeko bozeramaile Aintzane Ezenarro Egurbidek, indarrean den Erregelamenduaren babesean, **“Bakerako Urratsak unitate didaktikoaren inguruan”** hurrengo **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA** aurkezten du, **osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin**:

ZIOA

Joan zen urtarrilaren 12an Hezkuntza Sailburuak unitate didaktiko berriak aurkeztu zituen komunikabideen aurrean. Eduki pedagogikoetan ia aldaketarik ez dute lehendik zeuden ikas-materialeek, baina bai herri honetan azken hamarkadetan jasandako indarkeriaren aurreko ikuspegiaren murrizketa bat. Zehazki, torturari erreferentzia egiten zion bibliografia guztia ezabatua izan da. Horrez gain, “bakerako urratsak” unitatean zegoen GALEko biktima bakarraren testigantza desagertu egin da, bai eta indarkeria polizialaren biktima bakarrarena ere. Hori gutxi balitz, esperientzia pilotuetan ikasleen aldetik ebaluazio positiboena zuen ekimena bertan behera utzi dute: Antzerki tailerrarena.

Hori dela eta, hurrengo legez besteko aurkezten dugu:

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza sailburuari eskatzen dio “Bakerako Urratsak” unitate didaktikotik kendu dituen testigantzak berrezarri ditzala, bai eta torturaren gaineko bibliografia ere. Era berean, Antzerki tailerraren aukera ere unitate didaktikoen aukeren artean jaso dezala eskatzen dio.

Gasteiz, 2011ko urtarrilaren 20an

Aintzane Ezenarro Egurbide

Aralar taldeko bozeramailea

